BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5045

AGINDUA, 2013ko urriaren 28koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, «Soinuenea Fundazioa» delakoaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Ikusi eta aztertu dugu Oiartzungo (Gipuzkoa) «Soinuenea Fundazioa» delakoaren estatutuen aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatzen duen espedientea, eta kontuan hartu ditugu honako

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2013ko martxoaren 1ean eman zitzaion sarrera Herri Administrazio eta Justizia Saileko Erregistro Orokorrean, «Soinuenea Fundazioa» delako Fundazioaren ordezkaritzan Julio Abascal Gonzalez jaunak izenpetutako eskabideari. Eskabide hori Fundazioaren estatutuen 3. artikuluaren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko da. Horri erantsi zizkion espedientean jasota geratu diren dokumentuak.

Aldaketa hori eta gero honela geratuko da aipatu artikuluaren testua:

3. artikulua.– Fundazioaren helburuak.

1.– Fundazioaren helburua herri-musika zabaltzea, nagusiki musika euskalduna, bere modalitate ezberdinetan eta herri-musikaren inguruan ikerketa, trebakuntza, bilketa, kontserbazioa, zabalkundea eta antzeko gainerako jardueren bitartez.

2.– Helburu zabal horren barruan, jarduera jakin eta zehatz nagusienak eta lehengoak ondorengo hauek izango dira:

– Herri-musikarekin eta instrumentuekin zerikusia duten ikasketa-sustapenak egitea edo babestea eta ikerketa-proiektuak garatzea.

– Aipaturiko ikasketa eta ikerketa horiek zabaltzeko programak garatzea, eta Juan Mari Beltrán Argiñenak herri-musikaren inguruan eratu duen musika instrumentuen, bideoen, liburuen, diskoen eta antzeko objetuen bilduma egitea.

– Museoa edo zentro bat eratzea instrumentu eta dokumentuekin (liburutegia, fonoteka, irudien artxibategia, eta abar), eta den-dena herri-musikaren inguruko topagunea eratu eta fundazioaren helburua lortzeko asmoarekin.

– Herri-musikaren inguruan jardunaldiak, hitzaldiak, mintegiak, topaguneak, ikastaro espezializatuak, emanaldiak, errezitaldiak, entzute-saioak eta antzeko jarduerak antolatzea.

– Herri-musikan erabiltzen diren instrumentuak konpontzeko eta egiteko tailer bat antolatzea.

– Ikustaldi gidatuak, hitzaldiak eta trebakuntzako eta zabaltzeko gainerako jarduerak antolatzea.

– Herri-musika zabaltzeko aldizkariak, liburuak, DVDak eta gainerako euskarriak hedatzea.

– Helburutzat herri-musika ikertzea edo ezagutzea duten bekak, laguntzak edo sariak sustatzea.

– Herri-musikarekin loturaren bat duten beste erakunde batzuekin lankidetzazko hitzarmenak egitea.

– Herri-musikaren eremuan Oiartzungo herria estatuan zein nazioartean erreferente bilakatuko duten jarduerak garatzea.

– Gure lurraldera inguratzen den turismoari herri musika, eta bereziki Euskal Herriko kultura musikala erakustea.

– Hasierako helburua lortze aldera, bestelako edozein jarduera.

Bigarrena.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroen Zuzendaritzako Zerbitzu Teknikoek espedientea aztertu, eta ebazpen-proposamena egin dute.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Herri Administrazio eta Justizia Saileko Egitura Dekretuak Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari esleitzen dio espediente hau ebazteko eskumena.

Bigarrena.– Aurkeztu diren dokumentuek betetzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuak eta aplikagarri diren gainontzeko arau orokorrek ezarritakoa.

Hirugarrena.– Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariak 2013ko uztailaren 28ko Ebazpena eman du, babeslaritza-funtziotan jardunez eman ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 4.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik. Ebazpen horren bitartez, Fundazioaren estatutuen aldaketa onartu da, bat etorrita Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeak 31.1 artikuluan xedatutakoarekin eta aipatu dekretuaren 31.1 artikuluarekin.

Halaber, betetzen da Fundazioaren estatutuek horri buruz berariaz ezartzen dutena ere.

Hori guztia kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan Oiartzungo (Gipuzkoa) «Soinuenea Fundazioa» delakoari irekitako orrian inskribatzea, gaurko datarekin, fundazioaren patronatuak 2012ko abenduaren 7an adostutako bere estatutuen 3. artikuluaren aldaketa. Dokumentu honen arabera egin da inskripzioa: 2013ko urtarrilaren 30ean, 81 protokolo zenbakiarekin, Eduardo Clausen Zubiria notarioaren aurrean egiletsitako eskritura publikoa.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta Fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du; beraz, bere aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari. Horretarako epea hilabetekoa izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta

hurrengo egunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 28a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.